



Arartekoaren 2021R-1000-18 Ebazpena, 2021eko martxoaren 26koa, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen diona bizitoki kolektiboko marko fisikotzat jotzea erakunde sozial batek kudeatutako etxebizitza behar bezala erregistratua, gizarte alorreko esku-hartze programa batean integratutakoa, bertan bizi diren bizikidetza unitate guztiek izan dezaten aukera diru sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko. Halaber, gomendatzen da aldatzea egun araudian dagoen muga, bizikidetza esparru berean gehienez ere diru sarrerak bermatzeko errentaren bi bizikidetza unitate onuradun egotearena.

Aurrekariak

1. Arabako eta Bizkaiko hainbat elkartek jo dute Arartekoarengana, jakinarazteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua diru sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea ukatzen edo iraungitzen ari dela, eskaera egiteko egunean etxebizitza berean diru sarrerak bermatzeko errenta aitortuta duten bi bizikidetza unitate bizi badira, 147/2010 Dekretuan, maiatzaren 25ekoan, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duenean (147/2010 Dekretua) xedatutakoari jarraituz.

Elkarteek argudiatzen zuten diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa behar duten pertsona zaugarrienak, horren ondorioz, ostatueta edo pentsioetan bizi behar zirela, edo, logela partekatu bat lor bazezaketen, inolako gainbegiraketa edo laguntza profesionalik gabea izan behar zela.

Aipatutako dekretuaren 10.2. artikulua honako hau xedatzen du, berariaz:

“6.1 artikuluan definitzen den etxebizitza edo bizitoki partikular bat bi bizikidetza-unitatek edo gehiagok konpartitzen dutenean, etxebizitza edo bizitoki horretan eman daitezkeen Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioen gehieneko kopurua bikoia izango da, betiere prestazioa lortzeko baldintzak betetzen badituzte. Horrela gertatuz gero, prestazioa lehendabizi eskatu duenari emango zaio.”

Elkarte horiek inklusio sozialeko programak kudeatzen dituzte, eta programetan parte hartzen duten pertsonak ostatu hartzeko etxebizitzak izaten dituzte. Zerbitzu horien erabiltzaileak gizarte eta etxebizitza alorretan eskusio egoera larrian daude, eta gizarte eta lan alorretan inklusioa lortzeko esku hartze sozialetan sartuta daude. Lanbideren iritzi, haien bizitokia ezin da etxebizitza kolektibotzat jo, ez dituelako betetzen 147/2010 Dekretuaren 6.2. artikuluan jasotako baldintzak.

“Era berean, etxebizitzat edo bizitokitza hartu ahalko dira bizileku kolektiboko honako esparru fisiko hauek, aurreko artikuluan adierazitako bizikidetza-unitateak modu independentean erabiltzen dituztenean:





a) Turismoko, hoteleko edo hotelez kanpoko establezimenduak, Euskal Autonomia Erkidegoko turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen (abenduaren 23ko 16/2008 Legeak aldatu zuen) 12. artikuluan definitutakoari jarraiki.

b) Aldi baterako harrera-zentroak, publikoak edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen mendekoak, behar bezala baimendu eta homologatutakoak, itunpekoak, hitzartutakoak edo Administrazioak kontratatutakoak badira harrera-zerbitzu hori emateko edo irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeek sustatutakoak direnean, betiere harrera-baliabide hori itunpeko, hitzartutako edo Administrazioak kontratatutako gizarteratzeko edo gizarteratu eta laneratzeko beste programa batzuekin lotzen dituztenak.

Dekretu honi dagokionez, aldi baterako harrera zentrotzat hartuko dira harrera-pisuak, bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako abegi-zentroak, baita etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi-zentroak eta emakumeentzako beste harrera zentro batzuek ere, gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikularen 1.9.1, 2.4.5 eta 2.4.6 idatz-zatietan bildurikoak hurrenez hurren, horietan eman beharreko egonaldia dagokion gizarteratzeko banakako planaren bilakaeraren mende badago."

Araudiak aurreikusten du bizitoki kolektiboko esparru fisikoa dagoela jotzea aurreko baldintzak betetzen direnean; orduan, bertan ostatu hartzen duten bizikidetzaren unitate guztiek lor dezakete diru sarrerak bermatzeko errenta, baldin eta prestazioa lortzeko gainerako baldintzak betetzen badituzte.

2. Arartekoak, kexak izapidetzeko onartu ondoren, informazioa eskatu zion Lanbideri aipatutako egitateen inguruan.

Lanbidek erantzun zuen 147/2010 Dekretuan jasotako 6.2.b) artikularen edukia aipatuz, esanez baimena behar dela, foru aldundiei dagokiela ematea, eta zentro bakoitzerako eskatu behar dela. Horri lotuta, Lanbidek erakunde honi bidalitako erantzunean honako hau helarazi zuen:

"Zentro bakoitzeko baimen eta homologazio horretan daude ezarrita zentroaren baldintzak (artatutako pertsona kopurua, azpiegiturak, baliabideak, etab.) (...)en kasuan, Arabako Foru Aldundiak ez du aipatutako baimen hori eman, eta hala jakinarazi diogu. Elkarte gisa erregistratuta daude, baina beren zentroek ez dute ez baimen ez homologaziorik."

Gainera, Lanbidek azaldu zuen baimen hori lortzeko informazioa Arabako Foru Aldundiaren webgunean dagoela.





Erantzun horren berri eman ondoren, elkarte kexagileetako batek Arabako Foru Aldundiari baimena eskatu zion bere zentroak Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuetako Foru Erregistroan sartzeko.

Arabako Foru Aldundiak ezetsi egin zuen inskripzio eskaera, arauzko esparrurik ez dagoenez baimena ematea posible ez zelako. Honako arrazoiketa hau erabili zuen foru aldundiak: *“la falta de autorización de estos centros se debe exclusivamente a que, a día de hoy, esta Diputación Foral carece de competencias y de normativa sectorial para autorizar centros privados de acogida para personas en riesgo o en situación de exclusión, como tampoco dispone para autorizar centros privados de salud mental. El artículo 40 de la mencionada Ley vasca 12/20008 otorga al Gobierno Vasco la potestad reglamentaria en materia de servicios sociales para su ordenación, regulando la autorización, el registro, la concertación, la homologación y la inspección de centros y servicios, así como los requisitos materiales, funcionales y de personal para su autorización y funcionamiento; y esa potestad no ha sido ejercida por ese tipo de centros, como sí se ha ejercido en otros casos, como por ejemplo, para los servicios residenciales para la tercera edad (Decreto 41/1998) o para los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico (Decreto 148/2007).”*.

Nolanahi ere, aipatutako 12/2008 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarriak honako hau aurreikusten du:

“Eusko Jaurlaritzak, lege hau indarrean jartzen denetik urte bateko epean, gizarte-zerbitzuetako zerbitzu eta zentroei galdatu beharreko eskakizun material, funtzional eta pertsonalekoak arautuko ditu, zerbitzu eta zentro horiek baimentzeko eta homologatzeko. Horretarako, antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzu eta zentroak batera arautu ahal izango ditu.

(...)

Arauketa hori gauzatzen ez den bitartean, administrazio bakoitzak onartutako funtzionamenduko oraingo formulek iraungo dute.”

Elkarte horrek berriz aurkeztu du bere zentroak Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatzeko eskaera, eta orain dela gutxi ezetsi zaio, 2021eko martxoaren 8an, arrazoiketa berbera erabiliz. Arabako Foru Aldundiak azaldu du orain arte ez duela eskusio sozialeko arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako harrera zentro pribaturik baimendu, ez dagoelako sektoreko araudirik.





3. Ondorioz, Arartekoak informazioa eskatu zion une horretan gizarte politiken eskumena zuen Eusko Jaurlaritzaren sailari, jakiteko zein datatarako aurreikusitako prest edukitzea eskusio arriskuan edo egoeran daudenentzako harrera zentro pribatuetako eta osasun zentro pribatuetako baldintza materialei, baldintza funtzionalei eta langileen inguruko baldintzei buruzko araudia, 12/2008 Legearen, Gizarte Zerbitzuei buruzkoaren, Laugarren Xedapen Gehigarriari jarraituz.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko (gaur egun Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila) Gizarte Politiketako Sailburuordetzak honako hau adierazi zuen bere erantzunean: *“Gaur-gaurkoz, ez dago aurreikusita kontsultaren xede den araudia egitea”*.

Bestalde, hau erantsi zuen: *“147/2010 Dekretuaren 6.2. artikuluan ezartzen diren baimenari eta homologazioari dagokienez, Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroak egoteak (12/2008 Legea onartu zenean indarrean zezuden), sail honen ustez, ahalbidetu egingo luke Arabako Foru Aldundiak kontsultaren xede den elkarteak akreditatzea, elkarteak berak eskatzen duen baldintzetan, zuek bidalitako dokumentazioan jasotzen den bezala.*

Erregistro horietan inskribatuta dauden erakundeek ostatu kolektiboak daukate, eta Lanbidek horietan bizi diren bizikidetzak-unitate independenteei DSBEa kudeatu ahal izateko behar besteko akreditazioa dute, etxebizitza bakoitzeko bi prestazio izateko mugarik gabe, indarreko araudian ezarrita dauden gainerako betekizunak betetzen badituzte horiek. Are gehiago, mota horretako ostatu askotan ari dira onartzen bi bizikidetzak-unitate baino gehiago, arazorik gabe. (...) baina horrek ez du eragozten Arabako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan lege hori garatzen duten xedapenek foru-aldundiei esleitzen dizkien eskumenak bere lurralde-eremuan erabiltzea.”

Jasotako erantzun hori ikusita, Arartekoak informazioa eskatu zion Arabako Foru Aldundiari, erakunde horrek 14/2010 Dekretuan aurreikusitako betekizunak betetzeko baimena emateko aukeraren ingurukoa.

Arabako Foru Aldundiak berretsi zuen ez dagoela araudi sektorialik osasun mentaleko zentro pribatuak eta eskusio arriskuan edo egoeran daudenentzako harrera zentro pribatuak arautzeko, eta horregatik ez zutela baimen administratiborik jaso, araudian ez zeudelako ezarrita betekizun materialak, betekizun funtzionalak eta langileen betekizunak, tipologiaren arabera bete behar zituztenak. Gaineratu zuen Diputatuen Kontseiluaren 25/1999 Foru Dekretuaren, otsailaren 23koaren, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen duenaren, 2. artikulua, aurreikusi egiten duela honako hauek inskribatzea: *“los centros y servicios de naturaleza pública*





y los de naturaleza privada que hayan obtenido la preceptiva autorización, dedicados a la prestación de servicios sociales en el Territorio Histórico de Álava, así como las entidades de las que aquellos dependan”.

Arabako Foru Aldundiak honako hau adieraziz jarraitu zuen: *“carece de competencias y de normativa sectorial para autorizar centros privados de acogida para personas en riesgo o en situación de exclusión, como tampoco dispone para autorizar centros privados para personas con problemas de salud mental”.*

Aipatu den moduan, Eusko Jaurlaritzak dauka gizarte zerbitzuen antolamenduaren alorra arautzeko ahalmena, 12/2008 Legearen 40. artikuluari jarraituz, zehazki, zentroak eta zerbitzuak baimentzea, erregistratzea, itunpetzea, homologatzea eta ikuskatzea arautuz, baita baimena jasotzeko eta funtzionatzeko beharrezko betekizun materialak, betekizun funtzionalak eta langileen betekizunak ere. Ahalmen hori ez da erabili sektoreko alor horretan. Aldiz, adinekoentzako egoitza baliabideen alorrean erabili da (41/1998 Dekretua), baita etxeko esparruan tratatu txarrak jasan dituzten emakumeen harrera baliabideenean ere (148/2017 Dekretua).

Horrenbestez, ulertu denez beharrezko egitateak eta zuzenbideko oinarriak badaudela, honako hauek egin dira:

Gogoetak

LEHENENGOA: Zailtasun sozialeko egoeran daudenentzako politika sozialen helbrien artean dago eskusio sozialeko egoerak saihestea eta arintzea, baita inklusio soziala sustatzea ere estutasun ekonomikoak dituzten pertsonengan; estutasun horien arrazoiak izan daitezke nahikoa diru sarrera ez izatea, lotura familiarak eta sozialak eten izana eta muga pertsonalak edo ikasketenak tarteko gizartean eta ekonomian parte hartzeko edo eskubideak erabiltzeko zailtasunak izatea. Egoera horretan, Euskadik duela zenbait urte baditu arau corpus bat eta zenbait tresna eskusio sozialaren aurka borrokatzeko; horien gaur egungo isla nagusia 8/2008 Legea da, abenduaren 23koa, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusio Sozialerakoa, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutakoa.

Halaber, gaineratu beharra dago mugari garrantzitsua izan zela 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuetakoa, gizarte zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezarri zuelako, eta aukera eman zuelako arretarako sare publiko artikulatu bat finkatzeko, erantzukizun publikokoa, funtsean pertsonen eta harremanen ingurukoak diren prestazioen eta zerbitzuen bidez pertsonen integrazio soziala, autonomia eta ongizate soziala hobetzeko helburua duena. Horretan oinarrituta, arreta eta esku-hartze eredu bat eraikiz joan da, diagnostiko sozialerako





eta eskusioa baloratzeko tresna komunak garatu dira¹, eta prestazioen eta zerbitzuen zorroa arautu da².

Hori esanda, nahiz eta arreta nagusiki publikoa den, adierazi beharra dago esku-hartze sozialeko jarduera garrantzitsuak egiten dituztela Esku-hartze Sozialeko Hirugarren Sektorereko erakunde sozialek ere. Ekimen sozialeko erakundeen ezaugarrien artean daude konpromiso soziala, ekintza boluntarioa, izaera pribatua eta Administrazioetik bereizita egotea, baita irabazi asmorik gabekoa eta parte hartzekoa izatea ere.

Erakunde sozial horiek hainbat jarduera egiten dituzte, besteak beste, inklusio soziala sustatzeko eta zaugarritasun, ezberdinkeria sozial edo eskusio egoerei aurre egin behar dieten pertsoneri, familiei eta kolektiboeri eskubideak aitortzeko, horiek egiaz erabili ahal izan ditzaten.

Horretarako, elkarlanean aritzen dira, esku-hartze sozialaren esparruko politika publikoekin (6/2016 Legearen, maiatzaren 12koaren, Euskadiko Hirugarren Sektorereko Sozialaren, 10. artikulua).

Kexa egin duten erakunde sozialak inskribatuta daude Eusko Jaurlaritzaren Elkarleen Erregistroan eta Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan, eta, oro har, izaera sozial eta erabilgarritasun publikoko erakundetzat jotzen dira zergei dagokienez.

Jarduketa horietarako finantzazioa hitzarmenen eta elkarlanerako esparru akordioen bidez lortzen dute. Nolanahi ere, laguntzetarako deialdietan ere hartzen dute parte, eta dohaintza pribatuak ere jasotzen dituzte beren bazkideengandik edo entitateengandik. Beste finantzazio iturri batzuk ere izan ditzakete. Halaber, batzuetan, botere publikoek babes publikoko etxebizitzaren erabileraren lagapena errazten dute, erakunde sozialek bertan jarduera sozialak egin ditzaten, nahiz eta, oro har, programa horietarako baliatzen dituzten higiezinak etxebizitzaren merkatu pribatuko alokairuetatik lortu.

¹ 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa. 2013ko ekainaren 26ko EHAAn argitaratuta, 121. zk. Hemen eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2013/06/1302907e.pdf>

385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Baliosteko Tresna onartzen duena. 2013ko abuztuaren 7ko EHAAn argitaratuta, 149. zk. Hemen eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2013/08/1303530e.pdf>

² 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. 2015eko urriaren 29ko EHAAn argitaratuta, 206. zk. Hemen eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2015/10/1504561e.pdf>



Dena den, elkarte horiek aurreikus dezakete, espediente honen kasuan bezala, diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria bezalako prestazioak jasotzen dituzten erabiltzaileek gastuetako batzuk ordaintzea.

BIGARRENA: Horiek horrela, 147/2010 Dekretuko 10.2. artikuluko betekizuna, etxebizitza edo ostatu bera gehenez ere diru sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea duten bi bizikidetzaren unitatek partekatu ahal izatearena, oztopo bat da, zaildu egiten duena etxebizitza alorreko eskusioan daudenek prestazioa lortu ahal izatea, eta arazo hori azken urteotan gero eta emakume gehiagori ari zaio eragiten³.

Laneko nominarik ez dutenek etxebizitza alokatzeko dituzten zailtasunak zaurgarritasun handienekoei eragiten die. Ondorioz, alokairuko etxebizitza babestuen eskaria, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren azken txostenaren arabera, 76.792 eskaerakoa da, eta horietako 59.065ek pisu bat eskatzen dute, alokairuan. 2019an, alokairuko etxebizitza babestuen multzoa 23.594 etxebizitzak osatzen zuten⁴. Beraz, administrazioek ez dute lortzen horri erantzuna bete-betean ematerik.

Horregatik, Arartekoak kexa ugari jasotzen ditu, ostatu egokia behar duten pertsonenak. Hain zuzen, horietako askok esaten dute pisu partekatu batean gela bat alokatzeko ere zailtasunak dituztela. Horren guztiaren arrazoia da merkatu pribatuan kolektibo horrentzako etxebizitza gutxi dagoela, eta ezinezkoa dela, legez, etxebizitza bat bi bizikidetzaren unitaterekin baino gehiagorekin partekatzea prestazio ekonomiak jasotzen direnean. Egoera horretan, soilik bi bizikidetzaren unitatek partekatutako etxebizitzak lor ditzakete, alegia, gehien-gehienetan, bi pertsonak bakarrik partekatutakoek, kolektibo horren ezaugarrietako bat baita familia loturen haustura. Hori esanda, badirudi posible dela esatea 14/2010 Dekretuaren 10.2. artikuluen arauzko aurreikuspena ez datorrela guztiz bat bizi dugun garaiko gizartearen egoerarekin. Hain zuzen, politika publikoek ez lukete alde batera utzi behar egoera hori. Diru sarrerak bermatzeko errentagatik eta etxebizitzarako prestazio osagarriagatik jaso beharreko zenbatekoak, alokairuen prezioarekin eta orokorrean bizitzaren kostuarekin alderatuta, behartu egiten ditu eskusio sozialeko egoeran daudenak ezinbestean etxebizitza partekatzea. Hainbestera, non oro har pertsona bat egoten den gela bakoitzeko, nahiz eta bik bakarrik jaso ditzaketen diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarri.

³ EMAKUNDE, 2016: "EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik. Hemen eskuragarri: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/ad_juntos/txostena.37.bizitegi_bazterketa_larria.pdf

⁴ Etxebizitzaren txostena. Euskadiko Alokairu-Politikaren 2019ko ebaluazio txostena. Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovad03/eu/contenidos/informacion/ovv_alqu_2019/eu_ovv_admi/index.shtml



Horri jarraituz, ez da okerra honako hau argudiatzea: baldin eta asmoa bada etxebizitzaren gehiegizko okupazioaren arazoari aurre egitea eta, horrenbestez, prestazioa jasotzen duenaren bizi baldintzak babestea, komenigarriagoa litzateke egoera hori *ad casum* egiaztatzea, eskusio sozialeko egoeran daudenei ukatu ordez. Adibidez, etxebizitza batek hiru gela baditu eta eskusio arriskuan dauden pertsona bakarreko hiru bizikidetzak unitate bizi badira. Hor ez da arrazoizkoa gehiegizko okupazioaren arazoa dagoela argudiatzea. Nolanahi ere, arauaren egungo aurreikuspenarekin, horietako bik bakarrik eskura dezakete diru sarrerak bermatzeko errenta, nahiz eta legeak horretarako ezarritako betekizun guztiak bete. Ondorioz, paradoxa bat gertatzen da: etxebizitza bakoitzeko diru sarrerak bermatzeko errentaren bi bizikidetzak unitate onuradun egoteko mugak ezinezko bihurtzen du, edo zaildu egiten du, behintzat, diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak babestu nahi zituen pertsonen prestazioa lortzea.

Horretaz guztiaz gain, Arartekoaren iritziz, muga hori gainditzea zailagoa da COVID-19ak ekarritako osasun, ekonomia eta gizarte krisiaren egoera honetan. Eztaba daezina da muga hori berrikustekak populazioaren sektore zaurgarrienei onura ekarriko liekeela.

HIRUGARRENA: Gehiago sakontzeko, adierazi beharra dago muga hori agerikoagoa dela are lan sozial humanitarioa egiten duten erakunde sozialen kasuan. Esparru horretan lan egiten duten elkarteek pertsonen lagun egiten diete inklusio sozialerako ibilbidean, sarritan, osasun zerbitzuetan edo gizarte zerbitzuetan artatzen dituzten gizarte langileek beraiek bideratuta⁵. Familiaren babesik ez duten pertsonak izaten dira, lotura sozialak eta familiakoak hainbat arrazoigatik etenda izan ohi baitituzte.

Etxebizitza horiek bizitoki kolektiboko esparru fisiko ez jotzeak –zentro eta zerbitzuen baimen administratiborik ezaren ondorioz– berekin ekartzen du etxebizitza berean diru sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea duten bi bizikidetzak unitate baino gehiago bizi ezin izatea, beste edozein etxebizitzaren tratamendu bera baitute, hirugarren sektoreko erakunde sozial batek sustatutako inklusio sozialerako programa batekoa izatea gorabehera. Beraz, diru sarrerak bermatzeko errentaren bi onuradun bakarrik egon badaitezke, esku hartze soziala mugatu egiten da, eta zailtasun sozialak dituzten pertsona gutxiagori eman dakieke, erakunde horiek estali behar dituzten gastuak igo egiten direlako. Beste era batera esanda, zerbitzuetako erabiltzaileek diru sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen ez badute hemen aipatutako mugaketa horren ondorioz, erakunde horien diru sarrerak ere txikitu egingo dira eta, ondorioz,

⁵ Duten premia egoera ikusita, eta ostatu hartzeko leku bat izateko duten arazoaren jakitun, batzuetan gizarte zerbitzuetako eta buruko osasuneko zerbitzuetako gizarte langileek erakunde sozial horietara bideratzen dituzte, dituzten beharrei erantzuna emateko gai izango diren itzaropenez, kalean bizi ez daitezten.



baita beren esku hartzeko gaitasuna ere, ezingo baitiete horrek sortzen dituen gastuei aurre egin. Horrek batzuetan ekarri du erabiltzaileetako zerbitzuei harrera emateko etxebizitzak itxi behar izatea.

Beste aukera bat da pertsona horiek ostatu turistiko batean, hotel ostatu batean edo hotelaz kanpoko ostatu batean egotea. 147/2010 Dekretuaren 6.2.a) artikulua ere aurreikusten ditu establezimendu horiek bizitoki kolektiboen esparru fisiko gisa. Arazoa da ostatu horien prezioa handiagoa dela, eta ez dutela zailtasunei egokitutako arreta sozialik, eta, beraz, ez direla baliozko aukera bat eskusio eta babesgabetasun sozialeko egoeran daudenentzat.

LAUGARRENA: Etxebizitza horiek baimen administratiboa behar dutenez, halabeharrez egon behar da zentro edo zerbitzu pribatu horien betekizun materialak, funtzionalak edo langileenak ezartzen dituen araudia. Hala ere, araudi hori egin gabe dago, duela hamar urte baino gehiagotik. Horiek horrela, Arartekoak gogorarazi du zeinen garrantzitsua den eskatutako betekizunak arautzeko araudia egitea, eta ez dela jakina hori lortzeko aurrerapausorik egin den. Araudirik ez egoteak kalteak ekartzen dizkie elkarte horiei eta, ondorioz, baita haien zerbitzuen onuradun diren pertsona zaurgarriei era, ezin dutelako bete 147/2010 Dekretuaren 6.2. artikuluan ezarritako betekizuna.

Beraz, esku artean duguna lege hutsune bat da, nahitaezko baimena lortzea ezinezko bihurtzen duena. Hori dela eta, arauen aplikazio juridikoak emandako tresnetara jo beharra dago ezinbestean, esaterako, analogiaren interpretazio tresnara, araua aplikatu behar duenari aukera ematen baitio dagoen lege hutsunea betetzeko. Analogiaren bitartez egiaztatzen da Legeak aurreikusitako eta aurreikusi gabeko kasuen artean antzekotasuna dagoela. Kode Zibilak ezartzen du arauak analogiaz aplikatuko direla bertan kasu jakin bat jasotzen ez dutenean baina antzeko bat arautzen dutenean, bien arrazoia parekatu daitekeenean, zigor legetan, salbuespenekoetan eta aldi baterakoetan izan ezik, horiek ez baitira aplikatuko bertan berariaz aurreikusitako kasuetan eta unetan ez diren beste batzuetan.

Legezko integrazio zentzuzko horretara jota, ulertu daiteke zentro pribatu horiek bizitoki kolektiborako esparruak direla, beste itunpeko zentro batzuekin dituzten antzekotasunak tarteko. Zentro horiek irabazi asmorik gabeko entitate sozialek kudeatzen dituzte (itunpekoak bezala), gizartearen alorreko edo gizarte eta lan alorreko inklusio programak garatzen dituztenak, eta bertan egotea lotuta dago dagokion inklusio plan indibidualaren bilakaerari (147/2010 Dekretuaren 6.2. artikulua).

Horrenbestez, badago interpretazio hori egiteko moduko antzekotasun arrazoia. Hain zuzen, elkarte hauetakoren batzuek plazak dituzte administrazioarekin itunduta, eta beste batzuk itundu gabe, esku hartze sozialeko programetara





bideratuak horiek ere. Zentzuzkoa dirudi pentsatzeak halakotzat jotzeko nahikoa dela entitate sozialak gizarte zerbitzuetako entitate sozial gisa inskribatuta egotea (Eusko Jaurlaritzako Erregistroko elkarte gisa egoteaz gain). Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politiketako sailburuordetzak Arartekoari emandako erantzunean interesgarrizat jo zuen entitateak gizarte zerbitzuetako foru erregistroetan inskribatuta egotea.

Arartekoaren iritziz, baimen administratiboa ematea arautzeko legezko araudirik ez egoteak ezin du galarazi etxebizitza horiek bizitoki kolektiboko esparru fisikotzat jotzea aipatutako araudia egin bitartean, eskubide bat, diru sarrerak bermatzeko errenta kasu, lortu ezin den baimen administratibo bat jasotzearen mendean baitago.

Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak, 2000ko azaroaren 22ko epaian, 5223/1993 Errekurtsokoan, Konstituzio Auzitegiaren doktrina jasotzen du, hasieran [31/1994 Epaian, urtarrilaren 31koan](#)⁶, eta beranduago, errepikatu egiten du 47/1994 Epaian, otsailaren 16koan; 98/1994 Epaian, apirilaren 11koan; 240/1994 Epaian, uztailaren 20koan; 281/1994 Epaian, urriaren 17koan; 307/1994 Epaian, azaroaren 14koan; eta 12/1995 Epaian, urtarrilaren 16koan, baimen administratibo bat emateko lege hutsune bat egotearen ondorioei dagokienez; *“Por ello, sin negar la conveniencia de una legislación ordenadora del medio, en tanto esto no se produzca, no cabe, porque subsista la laguna legal, sujetar a concesión la autorización administrativa-de imposible consecución, por lo demás- el ejercicio de la actividad de (...)”* (7.ZO).

Diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea edo iraungitzea, jurisprudentzia doktrina horri jarraituz, baimen administratiboa emateko aukera ematen duen araudia egin bitartean, ez litzateke posible izango, araudirik ezak ez bailioke eragin beharko erakunde sozialen funtzionamenduari, orain arte beren zentroak bizitoki kolektiboko esparru fisikotzat jotzen zirela ulertuz jardun baitute; izan ere, bertan ostatu hartzen zutenek diru sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarri lortu ahal izan dute, bertan bizi ziren bizikidetzaren unitateen kopurua gorabehera.

Ildo horretatik, gaineratu beharra dago 12/2008 Legearren Laugarren Xedapen Gehigarriak berak honako hau aurreikusten zuela, gizarte zerbitzuetako zerbitzuak eta zentroak arautu bitartean: *“administrazio bakoitzak onartutako funtzionamenduko oraingo formulek iraungo dute.”*

Are gehiago, ezinezkoa zenez nahitaezko baimen administratiboa aurkeztea materialki eta logikoki, zentzuzkoa dirudi galdetzea ez ote gauden ezinezko edukia

⁶ Konstituzio Auzitegia. 31/1994 Epaiak, urtarrilaren 31koa, ECLI:ES:TC:1994:31. Hemen eskuragarri: <http://hj.tribunalconstitucional.es/de-DE/Resolucion/Show/2548>



duen egintza administratibo baten aurrean, eta, horrenbestez, ez ote den erabat deuseza, 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 47.1.c) artikuluari jarraituz.

Azken finean, lege hutsune baten eraginak erakunde sozialei pairaraztea ez da zentzuzkoa, eta ez dio jarraitzen 18/2008 Legeari, abenduaren 23koari, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoari, honako hau xedatzen baitu 1. artikuluan:

“Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.”

Azaldutakoan oinarrituta, Arartekoaren iritziz, esku-hartze sozialeko programa batera bideratutako egoitza zentro izateko baimen administratiboa eskatu eta lortu ezin den artean, ez da bidezkoa diru sarrerak bermatzeko errenta ukatzea edo iraungitzea bere inklusio sozialerako programa bateko erabiltzaile bati. Lege hutsune hori arauaren interpretazio analogikoa eginez bete behar da, zentro hori bitoki kolektiboko esparru fisiko jotzeko aukera emango duena, 147/2010 Dekretuaren 10.3. artikulua ondoz ondo, diru sarrerak bermatzeko errenta lortu ahal izan dezaten hirugarren sektoreko erakunde sozialek kudeatutako esku hartze sozialeko programetan sartutako etxebizitzetan, funtzio horretarako betekizun guztiak betetzen dituztenetan, bizi diren bizikidetzaren unitate guztiek. Hau da, etxebizitza horiek Eusko Jaurlaritzaren Elkarleen Erregistroan eta gizarte zerbitzuen foru erregistroan inskribatuta daudela frogatu bitartean, egun ondore horietarako dauden erregistro bakarrak baitira.

Horregatik guztiatik, Arartekoak gomendio hau egiten dio Lan eta Enplegu Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen du entitate sozial batek kudeatutako esku-hartze sozialeko programa batean sartutako etxebizitza bat, behar bezala erregistratutakoa, bitoki kolektiboko esparru fisikotzat jotzea, eta bertan ostatu hartzen duten bizikidetzaren unitate guztiek lortu ahal izatea diru sarrerak bermatzeko errenta (eta etxebizitzarako prestazio osagarria).

Halaber, eskatu du egun araudian dagoen mugaketa aldatzeko, diru sarrerak bermatzeko errentaren bi bizikidetzaren unitate onuradun egon ahal izatea, gehienez,





bizikidetza esparru berean, uste baitu osasun, ekonomia eta gizarte krisi honetan, babes publikoko etxebizitza nahiko ez daudenez, beharrezkoa dela ostatu egokia bermatzeko neurri sozial guztiak abiaraztea, ezinbestekoa baita bizitza duina izateko. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen araudia aldatuko dela iragarri da, eta, hori egitean, honako proposamen hau kontuan hartu beharko litzateke.

Azkenik, jakinarazten da Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailera jo duela, gomendatzeko ahal bezain laster egin dezan eskusio sozialaren esparruan gizarte zerbitzuetako zerbitzuak eta zentroak homologatzeko eskatutako betekizun materialak, funtzionalak eta langileenak jasotzen dituen araudia, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarrian jasotako moduan.

